

Leo Verdura oihanean

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA.
- PLASTIKA.


HELBURUAK

- Lurraldearen erabilerak identifikatzea.
- Erabilera horiek ekonomi, gizarte eta ingurumen ikuspuntutik dakartzaten ondorioak baloratzea.

MATERIALAK

- ◆ Leo Verduraren istorioa.
- ◆ Papera, boligrafoa, margoak, arkatzak eta abar.

Jardueraren garapena



Ikasleak lauzpabost lagunekotaldetan antolatutokoditugu eta Leoren komikiaren kopia bana emango diegu. Arbelean, segituko dugun gidoia idatziko dugu.

Hasteko, talde bakoitzean, istorioan ikusten duten egoeraz hitz egiteko eta ondoko galderei erantzuten saiatzeko esango diegu:

- Ikusten duzuen, aurre-rapen eta garapenaren sinonimoa da?
- Helburua gizakiaren bizi-raupena da? Zalantzan jarri beharko ote genuke oraingo garapen ereduak?
- Idatzi istorio honen eta Euskal Herriko egoeraren artean sumatzen diren aldeak.

Horren ostean, denboran jauzi egin eta Leoren oihaneko bizimodua hamar urte geroago imajinatzekeo esango diegu: nolakoa izango da? (Idatziz edo komiki taxua erabiliz adieraz dezakete).

Azkenik, bateratze-lana egingo dugu guztion artean: talde bakoitzaren iruzkinak entzungo ditugu eta planteatu dituzten etorkizun ezberdinak ezagutuko ditugu.